

Numax, gure unibertsitatea. Joaquim Jordàrekin solasean

1979an, Joaquim Jordàk dokumental bat filmatu zuen, Numax etxetresna elektrikoen lantegiko langileek egin zuten autogestio esperientziari buruz, jabeek enpresa modu irregularrean itxi nahi izan zutenean. Dokumentala Numaxeko Langile Batzarrak berak eskaturik egin zen. Enpresa desagertzeaz zela, erresistentzia kutxako azken 600.000 pezetak langileak protagonista izan ziren prozesu hura erregistratuta uzteko erabiltzea erabaki zuten.

Orain, berriz, Joaquim Jordàk *Veinte años no es nada* filmatu du, Espainiaren azken hogeita bost urteetako historia berreraiki nahi duen dokumentala, Numax lantegiko autogestio esperientzian protagonista izan ziren pertsonen bizitza ibilbidea abiapuntu gisa hartuz.

1979an, Joaquim Jordàren kamerak bildu egin zuen

Bartzelonako Numax lantegia kolektibizatu eta bertan autogestioa bultzatu zuen langile taldearen esperientzia. Hogeita bost urte geroago, kamera bera haiekin berrelkartu da. Borroka kolektiboan emandako urteen eta beren egungo bizimodu sakabanatuen artean, "lantegian bizi izandako esperientziari uko egin gabe, langile klase izateari uzteko borrokatu zen jende baten" desirak daude. Jordàk garai hartan atzeman zituen desira horiek, lehiatzeaz eta bere burua esplotatzeaz nazkaturik zeudelarik, autogestionatutako lantegiko langileek hura eskualdatzea erabaki zutenean: ez zuten beste inorentzat lan egingo, zentzua zuen lana egingo zuten, borrokan jarraituko zuten... Zertan geratu zen, ordea, hura guztia? Zer gertatu ote zen lantegiko espazioan politizatu ziren bizitza horiekin? Jordàk gauzak labur azaltzen ditu: "Beharbada ez zuten nahi zuten guztia egin, baina ez zuten nahi ez zuten ezer egin". *Veinte años no es nada*, 2005eko azaroan estreinatu zen Jordàren filma, galtzaile irten zen langile klasearen duintasun anonimoari eskainitako omenaldia da. Galtzaile irten ziren; ez zuten, ordea, porrot egin. "Ez zitzaidan interesatzen porrot baten historia kontatzea. Niri



Joaquim Jordà *Viente años no es nada* 2005

interesatzen zitzaidana hauxe zen, azken hogeita bost urte hauetako kaskarkeriaren eta lazturaren erdian, gauza bati eusten jakin zutela azaltzea: ezin zutela zitalkeria jakin batzuetan erori, inork ezin ziela iruzur egin, eta beraiek bizi izandako historia bati eusteko erantzukizuna zutela. Historia eredugarri bat, inolaz ere”.

Veinte años no es nada lanean behin eta berriz errepikatzen duten moduan, Numax unibertsitatea izan zen langile talde horrentzat. Abenduko arratsalde batean, Joaquim Jordàrekin hizketan ari ginela Bartzelonan duen etxean, bi film horietako esperientzia kolektiboaren bidez hurbildu gintzaizkiola, Numax guretzat ere unibertsitatea zela jakin genuen. Alde batetik, zeharo autonomia izan zen politizazio prozesu bat erakusten digulako: ideologiaren pisuaz ez, baizik eta

komunean jarritako bizitza batzuek duten asmatze eta sortze ahalmenaz azaltzen den bat. Bestetik, gurea den historia batean kokatzen gaituelako, desengainu eta traizio historia den trantsizio espainiar isilduan.

“Langile mundua bere antolakuntza eta erreboltarako gaitasunaz bizi izan nuen”, diosku Jordàk, *Numax presenta*-ko esperientzia gogoan. “Langile mugimendu klasikoarentzat, *Numax presenta* film galtzaile bat zen. Niretzat garaipena zena, haientzat porrota zen”. Garaipena, bigarren filmean ikusten dugu, bizitarako ikaskuntza bat da, eta ezin diogu horri uko egin. “Numaxen, oinarritzko ideia taldearena zen. Han, batzarraren bidez kohesioari eusten ikasi zuten. Talde esperientzia hartatik abiatuta, bakoitzak halako aberaste personal bat izan zuen. Eta paradoxa bat bada ere, norbanako



izaten ikasi zuten. Langile borrokak masifikatzen eta nortasuna galarazten duela badiote ere, Numaxen beste esperientzia bat gertatzen da. Batzuek bazuten dagoeneko biografia bat; beste batzuek, berriz, ez. Baina guzti-guztiek prozesu pertsonal bat bizi izan zuten, kolektiboaren bidez. Bakoitza bere tituluarekin atera zen Numaxetik”. Bakoitzaren prozesu politikoa bestearekin batera izandako duintze prozesu bat da, borroka komun baten baitan. Langile mugimen-duari atxikitzeko logika klasikoetatik urrun, haren kontsignek eta jarraibideek ezarritako bidetik at, Numaxen nork bere bizitzaren bidez deskubritzen du soldatapeko lanaren bortizkeria, bizitza bera arazo komuntzat aitortzen denean. Horregatik, Numaxeko langileen kritika ezin da kapitalismoari egindako kanpo kritika batean geratu. Ezinbestean, lanari eta honek bizitzaren gaineko domeinua ezartzeko duen erregimenari egindako kritika gisa formulatzen da. “Bigarren esplotazio kontzeptua aurkikuntza bat izan zen niretzat. Beste batek ni zigor batez jotzea, bale, baina jotzen duena ni neu izatea, ez horixe! Horrek aterarazten ditu hortik. Gainera, konturatzen dira interesatzen ez zaien, are gehiago, axola ez zaien lan bat egiten ari direla. Zerikusirik du haizegailu batek edo arrautzak egosteko tresna batek

beraiekin? Eta nola saldu, gainera, beste langile batzuei, hobeak eta merkeagoak badaude? Inork behar ez dituen etxetresna elektrikoak saltzen dituztenean, lankideei beraiei iruzur egiten dietela sentitzen dute. Horixe ikasiz doaz auto-gestioaren bi urte horietan. Ikusten dute lanak ez duela duintasunik ematen, eta gainera gauza zentzugabeak egiten ari direla”. Beren bizitzek, mendetasunetik eta biziraupenerako zorretatik modu kolektiboan erazuziek, gehiago nahi dute. Zentzu politikoa eta pertsonala, indibidual eta kolektiboa duen plus bat. Horixe da *Numax presenta* ixten duten desirerantz adierazten dena. Berez, bere konkista prekarioari, auto-gestiotik autoesplotazioarako bidaiari amaiera ematea erabaki duten bizitza batzuetarako promesak, haratago iritsi nahi baitute.

Espiritu kolektibo horrek, bakoitzaren berezitasuna bestearekin osatzen den horrek, lantegian aurkituak zituen bere koordenatuak. “Lantegia lau pareta edukitzea da. Nork bere buruari espazio bat eta denbora bat ematea”. Hogeita bost urte geroago, lantegia desagertu egin da, eta Numaxeko langileen bizitzak, aztarna ezabaezina daramatelarik barnean, kapitalismo berriaren sare-espazioan barrena dabilta. Eta langileen biografi sakabanatze hori metafora bat da, bakoitzak bere bizitza gizarte sarean jokatzeko duen bakardade edo isolamenduarena, hain zuzen ere. Lantegia borroka politikorako espazio gisa desagertzeak, eta geroago, prekaritasunaren bidez, gure lan eta bizitza ibilbideen pertsonalizazioak, aipatu horiek biek alegia, gure geografia politikotik ezabatu egin dituzte komunetik esperientzia egiteko espazioak. “Gaur egun, halako une jakin batean zerbait egiteko elkartzen diren abentura pertsonalen batura bat dugu. Funtsezko aldaketa bat da”. *Veinte años no es nada* lanean, berriz, Numaxeko langileak taxilari bihurtu dira, maistra, eskulangile, moja, abokatu, sukaldari, mendiko hippy, saltzaile... Bakoitzak bere historia du, bakoitzak bere borroka pertsonala du. Haatik, den-denek barnean gorderik dute partekatzen duten eta burua tente daramatela bizitzen ahalbidetzen dien sekretua: “Behin batean borroka egin genuen”.

Horien guztien artean, historia batek bereganatzen eta monopolizatzen du Jordàren begirada: Juan eta Pepiren historia da, bikote hau, beste lankide batzuekin batera, lapur bihurtu baitzen trantsizioaren lehen urteetan zehar. “Historiarik kontsekuenteena da. Beste guztiak pentsatu dutena praktikara eramane duen historia da. Kapitalaren aurkako borroka kolektibo bat antolatua zuten, eta trantsizioak galarazi egin ziren. Batzuek banakako bidean barrena jarraitu zuten, ildo beretik, orduan desjabetze eta orain lapurreta esaten zaien horien bidez”. Gizarte lapur horiek dira Numaxen elkarrekin egin zuten lanaren kritika muturrearaino eramane eta hitzez hitz landu zutenak. Halako mailan ezen Juanek, gaitz larri batez jota dagoelarik, “haur amets bat baitu: langile klasearen heroia izatea, traizioa egin dien gobernuko ministroa hiltzen duena, hain zuzen”. *Veinte años no es nada* lanak erakusten duen moduan, Juanek, bere atzeneko lapurretan, Barrionuevo bertan agertzea eskatu zuen. Barrionuevo eta hark ordezkatzeko duen guztia akabatzea da bizitza hondatu batzuen gorenko gunea, etsipenezko gune gorena, “ahantzterik ez duten gauzak ikustera iritsi baitira”.

Ba al da atzera egiterik? Hauxe dugu *Veinte años no es nada* ikusten ari garela isilean gogora datozkigun galderetako bat. Posible ote normaltasunera itzultzea, jokoaren arauak errotik aldatu direnean? Kaskarkeriaren, lehiakortasunaren, biziraupenerako bakarkako borroka pisuari eusterik ba al dago, surmen eta inteligentzia kolektiboaren kemena bizi izan dugunean? Juan Manzanarek bide bat adierazten du, erori artean egin dezakeen gauza bakarra aurrera jarraitzea dela dakienarena. Pepik eta, honekin batera, beste lankideek, bere bizitza zaurituekin, anonimotasunean duintasuna ere egon daitekeela erakusten dute. “Ezin diete iruzurrik egin”, dio Jordàk.

Ezin diete iruzurrik egin, haiek izan zirelako trantsizio garaiko borroketako eta traizionatutako ametsetako protagonistak. *Veinte años no es nada*, beste gauza askoren artean, trantsizioaren irakurketa bat da, Espainiaren azken urteetako historiaren gaineko begirada bat, kanpo azterketarik zein offeko ahotsik behar ez duen bat. Jordàren elokuentzia bere kabuz hitz egiten duen bizitza sorta batean biltzen da. Ez dira Jordàren analisirako gai, enuntziario subjektu bat baizik, badakite-eta “bakar-bakarrik entzun nahi dizunak entzuten dizula”. Haien lekukotasunak hautsi egiten du trantsizioaren ipuina: hau ez zen adiskidetzeko baten emaitza izan, ezta keinu errealista bat ere. Erregimen aldaketa finkatu zuten itunak ate itxi bat izan ziren atzera, beste kare geruza bat langile mugimenduaren gizarte berrikuntzarako azken ahaleginaren gainean. Beharbada azkena izango zen ahaleginaren gainean, azken uholdea izan baitzen 68tik 77ra bitartean gizarte garaioak astindu zituena, gizarte antolaketa modu berrien bila. Beste borroka batzuetako dirigismo komunistaren aurrean, 68-77ko uholdeak osagai autonomo indartsu bat izan zuten, Numaxek argi eta garbi erakusten duen moduan.

Ikusten dute lanak ez duela duintasunik ematen, eta gainera gauza zentzugabeak egiten ari direla.

Bi film hauek egitean aurkitu nuena langileen inteligentzia kolektiboa izan zen.

Jordàk errebindikatu egiten du esperientzia hori, eta hogeita bost urte igaro ondoren, itzuli egiten da bertara, bizitza kronika bat eta berrelkartze baten eszenaratze bat baliatuz horretarako. Eta esperientzia hura errebindikatzea nostalgia asmo oro kanpoan uztea da. “Ez dakit zer nostalgia egon litekeen. Iraganari begiratzen diogu gaur gauden tokiaren abiapuntu gisa”. Errebindikatzea, halaber, tolesgabetasunaren amarru gozagarria ere kanpoan uztea da: “Ez ziren inuzenteak izan. Oso bizkorrak izan ziren, oso azkarrak. Bi film hauek egitean aurkitu nuena langileen inteligentzia kolektiboa izan zen”. Nostalgia eta tolesgabetasunik gabe, Numaxen eta bere protagonisten historia eredugarria desgaraiko ageri zaigu. Historiaren koordenatuak bere tokitik ateratzen ditu, dagoeneko izana den iragan horretatik kanpora alegia, behin eta berriz galdera bat egiteko: noiz eta non gerta litezke, gaur egun, geure bizitza bera ere eraldatuz, sozialtasuna eraldatzen duten politizazio prozesu horiek? Noiz eta non egin diezaiokegu aurre, modu kolektiboan, lanean jarritako gure bizitzaren miseriari? Haiek modua izan bazuten... Gauza asko aldatu dira, ordea. “Gaur lana ondasun desiratu bat da. Urte hauetako birmoldaketa hain izan da handia, non langilearen figura amestutako egoera bihurtu baita. Seguruena iritsiko da figura hori dagoeneko desiratu ez den unea, eta orduan zeharo bestelako egoera bat izango da, lanaren beste errefus bat, erabatekoa azkenean. Gerta daitekeela uste dut. Ai, irudikatu ahal izango banu!

Veinte años no es nada. Ez da ezer komunari buruzko galdera atzera agertzen denean auzo batean, software baten argitalpenean, lur batez berriro jabetzean edo okupatutako etxe batean. Ez da ezer historia eredugarri batek gure normaltasunari galderak egiten dizkionean, eta erakusten digunean taxian garamatzatzen, lehenbiziko letrak irakasten dizkigutenean edo kafea ateratzen digutenean bizitza anoni-moen atzean borroka kolektiboaz osatutako iragan bat ezkutatzen dela, eta horiek guztiek haxe dutela, gainera, egungo bizimoduaren zergatia. Ez da ezer igarotako esperientzia batek esaten digunean gure oraina zerez eginga dagoen: zein giza material —ametsak, esperientziak, desirak, borrokak, lagunak— zapaltzen ari garen gure eguneroko hartu-emane-tan, gure garaiotako doilorkeriaz eta ergelkeriaz.



Jordàk zioen Numaxeko langileei ezin dietela iruzur egin. Ezin diete iruzur egin Numax, bere unibertsitatea, duintasun eskola bat izan zelako. *Veinte años no es nada*-ren amaieran, Numaxeko kolektibizazioaren protagonistetako baten semea negarrez hasten da. Gormutua da. "Hitzik egiten ez duena da. Adierazi besterik ezin du egin". Eta haren negarraz dena azaltzen zaigu, ageriko: bizi izandakoaren emozioa, porrotaren tristezia, "aita bat izatearen eta aita honek historia bat izatearen harrotasuna". Eta negar horrek, halaber, munduaren aurrean bakarrik zegoela uste zuelarik, benetan horrela ez dela deskubritzen duenaren ezinegona erakusten digu. Joaquim Jordàrengana hurbiltzeko, deskubrimendu hau egiteko prest egon behar dugu. Eta etorkizunera begira izan ditzakeen ondorioak onartu. ❧

MARINA GARCÉS irakaslea da Zaragozako Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatean. Bartzelonan bizi da.